

“DONOSTIA KIROLAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA” OINARRIAK (2026 denboraldia)

1 ZER DA?

“Donostia Kirolaren abonatu gazteentzako laguntza” da RURAL KUTXAren GIZARTE EKINTZAK DONOSTIA KIROLAren batera martxan jarritako egitasmo bat, kirola sustatzeko 1996-2011 urteetan jaiotako gazteen artean, Donostiako udal-instalazioak erabiltzeko hobariak eskainiz abonatuak, 2026ko denboraldian.

Helburua da bizitza-ohitura osasuntsuak zabaltzea gazteen artean, kirola egitera bultzatzea, eta bi erakundeek gazteekin duten konpromiso soziala indartzea.

% 50eko hobaria eskainiko da Donostia Kirolaren adin horretako abonatuak 2025. urtean ordaindutako kuotetan, abonuen titularrak badira, abonuen mota gorabehera (urtekoa, hilekoa edo lauhilekoa). Laguntza hau ez da aplikatuko sarrera-kuotetan.

2 NORK ESKA DEZAKE?

Laguntza eskatzeko baldintzak dira:

- 1996-2011 urteetan jaiotako gazteak.
- DONOSTIA KIROLAko abonatuak izatea eta 2026ko kuoten ordainketa egiaztatzea, donostiakirola.eus webguneko harpidetzen eremuan eskuratu ahal izango diren egiaztagirien bidez.
- RURAL KUTXAko bezeroa izatea, edo ez, laguntza eskatzeko unean, baldin eta ordainketa egiten bada erakunde honen kontu batean, eskatzailea titularra izanik.

3 EPEAK ETA DATAK

- Eskaera egiteko epea: 2026/01/01etik 2026/12/31ra.
- Kontuko abonua: Laguntza ordainduko da gehienez ere 30 egun naturaleko epean, kontatzen hasita 2025. urteko egiaztagiria edo egiaztagiriak jasotzen diren egunetik, oinarri hauetako baldintzak betez gero.

4 NOLA ESKATU?

Dagoeneko Rural Kutxaren bezeroa bazara, zoaz zure bulegora eta eskatu laguntza, 2026ko ordainketaren egiaztagiria edo egiaztagiriak aurkeztuta.

Rural Kutxaren bezeroa EZ bazara:

1. Zoaz Rural Kutxaren bulego batera, bezero gisa alta hartzera, eta eskatu laguntza, 2026ko ordainketaren egiaztagiria aurkeztuta. Adingabeek legezko tutoreekin joan beharko dute.
2. Bezero gisa alta har dezakezu ere online (Egin zaitez Bezero). Ondoren, bete ezazu webgunean aurkituko duzun formularioa, egiaztagiria PDF formatuan erantsita. Bezero gisa alta hartzeko online, nahitaezkoa da 18 urte baino gehiago izatea.

Nola deskargatu ordainketaren egiaztagiria?

Donostia Kirolaren webguneko Harpidetzak eremura sartu behar da (www.donostiakirola.eus). “Nire gunea” atalean, “Nire ordainagiriak” hautatu behar da, eta bertan egiaztagiria edo egiaztagiriak deskargatu. Gogoratu: 2025. urtean ordainketa bat baino gehiago egin baduzu (lauhileko kuotengatik edo hileko abonuegatik), egiaztagiri bat deskargatu beharko duzu eginiko ordainketa bakoitzeko.

“DONOSTIA KIROLAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA” OINARRIAK (2026 denboraldia)

Ez da onartuko eskaneatuta edo beste aplikazio batzuekin editatutako dokumenturik. Dokumentu originala deskargatu behar da Donostia Kirolaren webgunean.

5 BESTE BALDINTZA BATZUK

“Donostia Kirolaren abonatu gazteentzako laguntza” eska dezakete RURAL KUTXAko bezeroek eta bezero ez direnek, baldin eta ordainketa egiten bada RURAL KUTXAren kontu batean, eskatzailea titularra izanik.

Atzera botako dira pertsona hauek eginiko eskaerak:

- Eskaera aurkezteko epea amaitzean (2026/12/31) RURAL KUTXAko kontu baten titularrak ez diren pertsonak.
- Kontua abonuetarako blokeatuta duten pertsonak, haien dokumentazioa eguneratuta ez egoteagatik edo beste arrazoi batengatik.
- Oinarri hauetako baldintzak eta epeak betetzen ez dituzten pertsonak.

6 KONTSULTAK ETA ZALANTZAK

Edozein zalantza argitu edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, sartu <https://www.ruralkutxa.com/es/donostiakirola> webgunearen “Kontaktatu” atalean edo zoaz RURAL KUTXAren edozein bulegotara.

7 AZKEN ARGIBIDEAK

“Donostia Kirolaren abonatu gazteentzako laguntza” jasotzeko, Oinarri hauetako baldintza guzti-guztiak bete behar dira.

RURAL KUTXA arduratuko da egiaztatzeaz Oinarri hauetako baldintzak betetzen diren eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena eta egiazkoa den, eta haren erabakia apelaezina izango da.

Erakundearen bezero gisa onartua izateko eta egitasmo honetarako kontuak irekitzeko, RURAL KUTXAren kontuak irekitzeko protokoloa bete beharko da. Protokoloa betetzen ez bada, ez da laguntzarik jasoko.

Egitasmo honen oinarriak eskura daitezke <https://www.ruralkutxa.com/es/donostiakirola> webgunean. Egitasmoan parte hartu nahi dutenek webgune horretan jasotakoa izango dute kontuan soil-soilik, eta ez ahoz jaso dezaketen beste aipamenik.

Ekimen honetan parte hartzeak esan nahi du RURAL KUTXAren oinarriak eta irizpideak onartzen direla, laguntza hauei loturiko auzi edo desadostasun oro ebazteari dagokionez.

8 DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna? Zure datuen tratamenduaren arduraduna da RURAL KUTXA S.C.C. (helbidea: Foruen plaza 1, 31003, Iruñea). Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa: protecciondedatos@ruralkutxa.com.

“DONOSTIA KIROLAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA” OINARRIAK (2026 denboraldia)

Zertarako erabiliko dira datuak? Datuak erabiliko dira RURAL KUTXAren “Donostia Kirolaren abonatu gazteentzako laguntza” egitasmoan parte hartzeko eta onuradunei laguntza emateko.

Zure datuak gordeko dira deialdi hau amaitu eta bi hilabetez gehien jota.

Zergatik erabiliko dira zure datuak? – Legitimazioa. Zure datu pertsonalak erabiliko dira aurreko paragrafoan aipatutako helburuetarako zure baimenean oinarrituta.

Noren esku utziko dira zure datuak? Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak behartu ezean. Zerbitzu-hornitzaileen esku utzi ahal izango dira, datuen babesaren arloko agintarien jarraibideak betetzen dituzten kontratu eta bermeekin beti.

Zer eskubide dituzu? Datuen titular gisa, eskubidea duzu, besteak beste, datuak eskuratzeko, eguneratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko. Horretarako, RURAL KUTXA S.C.C.-era jo behar duzu (Foruen plaza 1, 31003, Iruñea), gure edozein bulegotara, edo idatzi bat bidali behar duzu protecciondedatos@ruralkutxa.com helbide elektronikora, zure NANaren edo legezko beste identifikazio-agiriren baten kopia erantsita.

Nork bermatzen ditu zure eskubideak? Nori aurkeztu erreklamazioa? Erreklamazio bat aurkeztu nahi baduzu edo datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudiaren gaineko informazio gehiago lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da agintari eskuduna da (Jorge Juan 6, 28001, Madril).